

ARALARREN BAITAKO HIZKUNTZA POLITIKA

(Aralarren baitako hizkuntza-politika, Hegoaldeko batzarrak onartua, 2007-01-13)

1. ATARIKOAK

Aralarrek jaio orduko izan du euskararen normalizazioarekiko konpromiso eraginkorra bai gure oinarri filosofikoak eta ideologikoak finkatu ditugunean baita gure jardun politikoan ere.

Aralarren ildo ideologikoa definitzen duen dokumentuan hau esaten da besteak beste:

'ARALARrek pertsona eleanitzez osatutako gizarte euskalduna du helburu. Alabaina, jakitun gara helburu hori ez dela berehala lortzekoa izango, baizik eta belaunaldiak iraungo duen prozesua izango dela. Helburu hori lortzeko egungo Euskal Herriaren egoera soziolin- guistikoa kontuan hartuko duen prozesua jarriko dugu abian, tokian tokiko berezitasunak eta egoera konketuak errespetatuko direlarik. Hala ere, norbanakoen hizkuntza-eskubideak eta hizkuntza-hautua errespetatzearen aldekoak gara.'

Gure barne-araudian are gehiago zehazten da euskararen aldeko hautua:

11. artikulua. Hizkuntzak.

1. ARALARko hizkuntza euskara da eta ARALARko funtzionamendua hizkuntza-anitza

izango dela bermatuko da. ARALARrek Euskal Herriko hizkuntzen erabilerari buruzko neurriak emango ditu, informazioa jaso eta barne-eztabaidan parte hartzeko eskubidea berdintasunean garatu dadin.

2. Dena den, ARALARrek Hizkuntza Normalkuntzarako Plangintza bat ezarriko du erakundearen martxan jartzeko. Plangintza horretan, besteak beste, erakundeko arduradunen, kargudun publikoen eta langileen hizkuntza-eskakizunak zehaztuko dira.

43. artikulua.

6. Koordinatzaile Nagusiak, Koordinatzaile Nagusi Ordeak, Idazkariak, Komunikazio-arduradunak, Antolaketa eta Formazioa arduradunak, Erakunde Harremanetarako arduradunak, Gizarte mugimenduekiko harremanetarako arduradunak eta Hizkuntza Normalizaziorako arduradunak euskaldunak izan behar dute.

72. artikulua.¹

12. Edozein aukeraketa-prozesutan bi edo hautagai gehiagoren artean boto berdinketarik egongo balitz, hautagai euskaldunak izango luke lehentasuna eta irizpide hau aplikatuta berdinketak jarraituko balu, emakumezkoak izango luke lehentasuna eta, hala ere, berdintasunak jarraituko balu, afiliazio-datarik zaharrena duenak.

13. Ahal den neurrian ARALARrek genero mailan parekotasuna lortzera Joko du, batetik, eta lehen postuak betetzen dituztenak euskaldunak izatera, bestetik.

Barne- zein kanpo-funtzionamenduan euskaraz dihardugu neurri handi baten eta, hain segur, gainerako alderdiek baino proportzio handiagoan. **ARALARrek pertsona eleanitzez osatutako gizarte euskalduna du helburu** eta beraz, Aralar euskalduna behar genuke helburu. Alabaina, errealitate horretara heltzeko neurriak, eta epeak zehaztu eta araudian txertatu behar dira hori ez dago araututa eta zehaztuta. Hori dela eta, 2007ko udal hauteskundetarako hautagai-zerrendak osatu baino lehenago Aralarren baitako hizkuntza-politika definituta izatea, hots, gure barne-araudiak agintzen diguna betetzea, beharrezkotzat ikusi da zerrenda horietan aplikatzen hasi ahal izateko.

Proposamen honek EAEko nahiz Nafarroako Aralar hartzen ditu bere baitan, beti ere.

2- PROZEDURA

Aralarren baitako hizkuntza-politika definitzeko jarraituko den prozedura hau izango da:

- Hizkuntza politikarako Hegoaldeko mahaiak proposamena landuko du,
- Zuzendaritza nazionalak proposamena aztertu eta, hala balegokio, berretsiko du,
- Berariak eginiko Biltzar Orokorrean eztabaidatu eta hala balegokio, onartuko da.

3- OINARRIAK

3.1- Planaren ezarpen-esparruak.-

Ondoko hauek dira:

- a) Aralarren barne-kargudunak.
- b) Aralarren kargudun publikoak.
- c) Aralarkideak.

3.2- Planaren iraunaldia.

Plana 4 urteko epealdietan garatuko da. Plangintzarako lehen epealdia 2010eko abenduaren 31an amaituko da. Ordurako lehen plan honen berrikusketa egina egongo da eta bigarren plana onetsita.

¹ 72.artikuluko 13. puntua beste artikulua hauetan ere aipatzen da: 78.ean, 79.ean, 80.ean, 81.ean eta 82.ean.

3.3- Helburuak.

Helburuak lantzen hasi baino lehen komenigarria da gero usatuko diren hainbat kontzeptu argitzea. Behean zehazten dira:

- **Elebiduna** euskaraz arazorik gabe aritzeko gaitasuna duen pertsona.
- **la elebiduna** euskara ulertu bai, baina hitz egiteko gai ez den pertsona.
- **Eremu bateko elebidunen indizea:** barne edo kanpo organoetako edo hautagai-zerrendetako kide guztiei dagokienez elebidunak izan behar duten kideen portzentajeari dagokion indizea. Indize hori indarrean dagoen zentsuko elebidunen datuen bidez ateratzen da, honako formula honen bitartez: 'elebidunak +(ia-elebidunak)' / Biztanleria osoa x 100
- **Ekintza positiboa:** ezin aplikatu dakieke hizkuntza-politika berdina egoera ezberdinetan diren hizkuntzei, baldin eta xedea euskal hiztunen eta erdal hiztunen arteko desberdintasunak eta desoreka arintzea bada. Euskal Herrian euskaldunek diskriminazio nabaria jasaten dugu, Nafarroan eta Iparraldean are larriagoa dena, eta ekintza positiboak ezartzen etxetik hasi beharra dago. Aralarkideok osatzen dugun hiztun komunitate txikian hizkuntz eskubideak bermatzen ez baditugu, nola nahi dugu gizartea lortu? Hortxe dugu lehen erronka, beraz.
- **Erakunde edo organo euskalduna:** bere zereginak euskaraz zein gaztelaniaz egiten dituen erakundea edo organoa da.
- **Erakunde edo organo erdalduna:** bere zereginak gaztelaniaz egiten dituen erakundea edo organoa da.

- Dokumentu honetan ezartzen diren **helburuak gutxieneko helburu** modura hartu behar dira.

- Hautagai-zerrenda, organo edo erakunde orok, gutxienez, bere eremu geografikoari dagokion elebidun-indizearen berdina izango den elebidun-portzentajea izango du. Indize horrek 2001eko Zentsuak Euskararen jakiteari buruz eman dituen datuak izango ditu oinarri. Indize hori hurrengo zentsuaren (2006koaren) datuak ofizialtzen diren momentuan egokitu beharko da, eta ondorik barruko kargudunak eta kargudun publikoak hautatzeko prozesuetan izango ditu ondoreak.

- Hautagai-zerrendak egitean, elebidunen portzentajeak aplikatuko dira, hamar laguneko tarteka; eta lagun horien artean bete beharko da arautegi honetan ezarritako elebidunen portzentajea.

3.4.- Halabeharrezko kargu edo postu elebidunak.

Jarraian adierazten direnak elebidunak izango dira:

I. Kargu publikoak betetzeko hautagaien artean:

a. Eusko Legebiltzar, Nafarroako Foru Parlamentu, Batzar Nagusietarako, Kongresu eta Senatu, eta Europako Parlamenturako zerrenda-buruak;

b. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria, Nafarroako Foru Gobernuko presidentea, Eusko Legebiltzarraren lehendakaria, Nafarroako Parlamentuko presidentea, Diputatu Nagusiak, Batzar Nagusien lehendakariak, bai eta Aralarrek organo legegile horietako mahaietan dituen ordezkariak;

- c. Hiriburuetako alkateak, Lan Harremanen Kontseiluaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren lehendakariak, Arartekoa eta EITBko zuzendari nagusia;
- d. Gobernuen ganbera legegileen eta hiriburuetako alkatetzetako bozeramaileak;
- e. Euskaldunen indizea % 50a baino handiagoa den herrietako alkategaiak;
- f. Era berean, lehentasuna emango zaie euskaraz dakitenei, karguak bete behar badira Aralarren koadro politikoen menpeko erakunde autonomiadun publikoetan.

II. Barne-kargudunei dagokienez:

- a. Koordinatzaile nagusia, koordinatzaile ordea eta lau herrialdeetako koordinatzaileak,
- b. Zuzendaritza nazionaleko eta herrialde zuzendaritzako bozeramaileak,
- c. Zuzendaritza Nazionaleko idazkaria, komunikazio-arduraduna, antolaketa- eta formazio-arduraduna, erakunde-harremanetarako arduraduna, gizarte mugimenduekiko harremanetarako arduraduna eta hizkuntza normalizaziorako arduraduna
- d. Biltzar Nagusiko, Hego Euskal Herriko Batzarraren eta Herrialde Batzarretako mahaien kideak,
- e. Berme-batzordearen kideak,
- f. Batzorde kontu hartzailearen kideak.

III. Lurralde-eremua irizpidearen arabera:

- a. % 35eko edo hortik gorako indizea duten eremu geografikoetako zerrenda-buruak; kultura, gazteria, euskara eta hezkuntza arloen ardura duten pertsonak eta bai bozeramaileak, betiere, kargu horiek sartuko dira eremu geografiko bakoitzari dagokion ehunekoaren kopuruaren barruan;
- b. % 60ko edo hortik gorako indizea duten eremu geografikoetan, arloko arduradun nagusiak eta bozeramaileak, kargu horiek sartuko dira eremu geografiko bakoitzari dagokion ehunekoaren kopuruaren barruan;
- c. % 70eko edo hortik gorako indizea duten eremu geografikoetako hautagai-zerrenda osoak.
- d. % 35etik beherako indizea duten eremu geografikoetarako: bozeramailea, kultura, gazteria, hizkuntza-politika eta hezkuntza arloen ardura duten pertsonak.
- e. **EAEKO ERAKUNDE OROKORRETAN** (%70eko euskaldun-indizea), sailburu, sailburuorde eta zuzendari guztiak. Kabinete-burua, komunikazio-arduraduna eta idazkari pertsonala. Eusko Legebiltzar taldeko bozeramailea. Gainerako izendapen libreko pertsonalean % 70a. Era berean, portzentaje hori eremu orokorreko erakundeetako kide guztiengana hedatu ahal izango da (enpresa publiko, erakunde autonomo, etab.).
- f. **NAFARROKO ERAKUNDE OROKORRAK** (% 35eko euskaldun-indizea) Sailburu guztiak. Kabinete-burua, komunikazio-arduraduna eta idazkari pertsonala. Nafarroako Parlamentuko bozeramailea. Gainerako kargudunetan % 35a, baita eremu orokorreko erakundeetan.
- g. **ARABAKO ERAKUNDE OROKORRAK** (% 35eko euskaldun-indizea). Diputatu guztiak. Kabinete-burua, komunikazio-arduraduna eta idazkari pertsonala. Biltzar Nagusietako taldeko bozeramailea. Gainerako kargudunetan % 35a, baita eremu orokorreko erakundeetan.
- h. **BIZKAIKO ERAKUNDE OROKORRAK** (% 60ko euskaldun-indizea). Diputatu eta zuzendari guztiak. Kabinete-burua, komunikazio-arduraduna eta idazkari pertsonala. Biltzar Nagusietako taldeko bozeramailea. Gainerako kargudunetan % 60a, baita eremu orokorreko erakundeetan.

i. GIPUZKOAKO ERAKUNDE OROKORRAK (% 80ko euskaldun-indizea). Diputatu eta zuzendari guztiak. Kabinete-burua, komunikazio-arduraduna eta idazkari pertsonala. Biltzar Nagusietako taldeko bozeramailea. Gainerako kargudunetan % 80a, baita eremu orokorreko erakundeetan.

IV. Aralarren soldatapeko pertsona guztiak baldin eta egitura nazionalekoak, herrialde-egiturakoak edo euskaldun-indizea % 35a baino handiagoko egitura batekoak badira.

3.5- Lan-hizkuntza.

Aralar erakunde elebiduna izanik ere, euskara izango du lan-hizkuntza bere barne-organoetan eta ganbera legegileen barne- zein kanpo-jardunean.

3.6- Aralarren agerkariak.

Aralarren komunikazio-baliabide nazionaletan euskararen erabilerak lehentasuna izango du. Herrialde zein eskualde mailako baliabideetan lurralde-esparru horri dagokion euskaldun-indizea aplikatuko zaio.

Erraondo aldizkarian euskararen erabilerak lehentasuna izango du eta gutxienez espazioaren %60a euskaraz egongo da.

Aralarren web-gune nagusiak gutxienez bi bertsio izango ditu, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Defektuz euskarazko bertsioa agertuko da lehenik Aralarren web-gune guztietan edozein delarik lurralde-esparrua.

3.7- Salbuespenak

Goian aipatutakoan eskema orokorrean salbuespenak egon litezke. Beti ere, salbuespen bat egiteko idatziz argudiatu beharko zaio Zuzendaritza Batzordeari eta horrena izango da erabakia.

3.8- Bermeak

Euskaraz ez dakien aralarkideak informazioa gaztelaniaz ere modu egokian jasoko duela bermea izango du.

Nazio mailako batzarretan aldibereko itzulpen-zerbitzua halabeharrezkoa izango da. Bestelako, batzarretan euskara hutsez eginiko parte hartzeen gaztelaniazko laburpen modukoa egin beharko du mahaiak beharrezkoa denean, baldin eta hizlariak egin ez badu.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Gorago aipatzen diren elebidun-indizeez gain, Aralarrek lurralde (herri, eskualde edo herrialde) horretan dituen militanteen elebidun-kopurua ere kontuan hartuko da berorri dagokion elebidun-portzentaje minimoa zehazteko, beti ere, bi indizeon artean alde handia egongo balitz.